



AZUKREEKIKO INTOLERANTZIA ZEHAZTEKO ARNASAN BOTATAKO HIDROGENOAREN TESTA EGITEKO ARAUAK (LAKTOSA, SORBITOLA ETA FRUKTOSA)

ZER DA PROBA HAU?

Hainbat azukre dauden (sorbitola, fruktosa eta laktosa) eta haiekiko intolerantzia diagnostikatzeko laguntzen duen proba bat da.

Hesteko bakterioek zenbait azukre digeritzean sortutako hidrogenoa neurtzen da.

PROBA EGITEKO EGUNEAN

- Proba goizez egiten da, AUOko kanpoko kontsultetako eraikineko 4. solairuan.
- Baraurik egon behar duzu aurreko gauetik, gutxienez 10 orduz (ezin duzu solidorik hartu, ez eta likidorik ere, ura barne).
- Gehitutako dieta egin behar duzu, proba egin baino 24 ordu lehenago.
- Erretzailea bazara, ez duzu erre behar.
- Proba egitera joan aurretik ahoaren higieze zorrotza egin beharko duzu.

ZER DA PROBA HAU?

- Egun berean ezin da azukre mota baten baino gehiagoren azterketa egin.
- Miaketa-gelan, determinazio basala egingo da, eta ahoko batetik egin beharko duzu putz horretarako testen makinan.
- Horren ostean, probaz arduratzen diren erizaintzako langileek aztertzen ari garen azukrea emango dizute, uretan disolbatuz, eta gela horretan hartuko duzu.
- Jarraian, itxarongelan eserita atseden hartuko duzu eta, 30 minutuan behin, makinan ahokotik putz egingo duzu. Probaren iraupena 3 ordukoa da eta paziente guztiek osorik egin behar dute.
- Positibo emanez gero, emaitza hori jakinarazi eta dieta bat aginduko dizugu, medikuak haren eraginkortasuna ebaluatu dezan beste azterketa-kontsulta batean.

OHARTARAZPENAK

- Gogoan izan **proba ez dela egin behar aurreko 4 asteetan antibiotikorik** hartu baduzu.
- Gogoratu ez duzula proba egin behar kolonoskopia, enterorresonantzia (4 aste lehenago) egiteko prestakuntza hartu baduzu, eta aurreko 7 egunetan ere ezingo duzula libragarririk edo prozesinetikorik (Zidine, Levogastrol ...) hartu.
- Haurdun bazaude edo bularra ematen baduzu, ezin duzu testa egin.

GURI JAKINARAZI BESTE HITZORDU BAT EMATEKO

Harremanetarako telefonoak: zalantzarik baldin baduzu, deitu telefono-zenbaki honetara: 945 007 592. Kontsultara joaterik ez baduzu edo hitzordua aldatu behar baduzu deitu 945 007500 telefono-zenbakira.